

• Muin lesio traumatikoa •

Itxaropenak Portugalen du atea

Istripua izan duen askok ilusioa berreskuratu du Portugalen, Reis doktoreak muin lesio traumatikoaren ebakuntza egiten baitu. Aldekoak bezain sutsuak dira “Mirarien Doktorea” deitu ohi dutenaren aurkariak. Egia ala iruzurra? Probatu duten hainbat euskaldunekin izan gara eta eurek argi dute: emaitza ezin baikorragoa izan da eta mezua zabaldu nahi dute.

MIKEL GARCIA

AURREAN DUDAN GIZONAK, sorbaldak aurrera eta atzera bortizki mugituz gartsu hitz egiten duenak, mekanikoki arnasteko eztarrian jarri zioten aparailuaren aztarnak ditu oraïndik. Gezurra badirudi ere, duela bi urte Donostiako Uliako arroka batetik erori eta tetraple-

giko geratu zen, lepotik behera ezin mugitu, ezin sentitu. Betiko horrela izango zela jakinarazi zioten Osakidetzan Jose Mari Munduateri, ezinezkoa zela ebakuntzarik egitea. Antonio Reis doktorearen berri izan zue-nean, ordea, ez zuen zalantzarik egin, zer

MIKEL GARCIA

Ezker-eskuin: Patxi Salbide, Pello Mugarza, Jose Mari Munduate, Degant Cerviño eta Haizea Erkizia.





Ezkerreko irudi txikietan, Patxi Salbide Lisboan, Antonio Reis neurozirujauarekin berriketan (goian) eta fisioterapeutarekin hankako muskuluak lantzen (behean). Eskuineko argazkian, Reis bera hitzaldia ematen, Donostiako Kursaalaren. Albokoa Patxi Salbide da, bere bitartez etorri baitzen ebakuntza teknikak aurkeztera, 2006an.

zuen galtzeko? Lisboara joan eta ordu eta erdiko ebakuntza egin zioten. Hurrengo egunean, Lisboako zentroan oraindik, hotza zuela konturatu zen. “Hotza daukat!”, egin zion oihu alboko gaixoari. Zeinen gauza pozgarria hotza, beroa, mina, laztanak sentitu ahal izatea. Zeinen pozgarria gorputza bizirik sentitzea.

Munduateren antzera, Reis doktorearen eskuetatik igaro izanak hamar lagun inguru elkartu ditu, EAE eta Nafarroako osasun politikak salatzeko, duten lesioaren inguruko ikerketa gehiago eskatzeko eta, batez ere, etorkizuneko lesionatuekin eurei gertaturikoa ez errepikatzeko: “Hau pasatzen zaizunean, psikologoa jartzen dizute, egoera berria asimilatzen, eta zentro batera bidaltzen zaituzte gorputza errehabilitatzeko, baina gurpil-aulkiarekin bizitzen ikastera zuzendutako errehabilitazioa da, atzera bueltarik ez dagoela ziurtatzen baitzute medikuek, eta ez da hala”, dio Degant Cerviñok. 2007an lesionatu zen Cerviño, eta bederatzi hilabete dira Reisek ebakuntza egin ziola. Elkarteko kide guztiek istripu baten ondorioz izan zuten muin lesio traumatikoa. Urtean 60 bat kasu izaten dira EAEn, baina urtetik urtera goraka egiten du kopuruak.

Garai desberdinetako pazienteak diren arren, denek antzeko prozesua izan dute

istripua gertatu ostean: farmako bidezko tratamendu aringarriak jaso dituzte, kortisonarekin-eta hanturak jaisteko, eta Tole-doko (Espainian) edo Badalonako (Katalunian) paraplegikoentzako zentroetara bidali dituzte, lesioarekin eta gurpil-aulkiarekin moldatzen ikasteko. Soluziorik? Ebakuntzarik? Ez, hori oso argi uzten diete denek, ezinezkoa da. Mundua gainera etortzen zaie eta antidepresiboak oso ohikoak dira. Zunda zakilean eta aluan sartu beharra, esfinterra –eta beraz komunera joateko gogo– sentitu gabe, gernu-aparatuko infekzioak, ultzeratzeak, zarrakarrak gorputzean... Eta hori guztia gutxi balitz, etxea eta autoa egokitzeak edota aulkia erosteak dakartzan gastu ekonomiko handiak.

PATXI SALBIDE

Haizea Erkiziak bi urte baino gutxiago daramatza aulkian eta psikologikoki oso gogorra dela aitortu du: “Izugarrizko aldaketa da, ez soilik ezin duzulako ibili, baita ibiltzea baino garrantzitsuagoak diren funtzionalitateak galtzen dituzulako ere. Oso une txarrak pasatzen dituzu eta gainera itxaropenerako ate guztiak ixten dizkizute. Horregatik, inguru funtsezkoa da. Badalonako zentrotik itzuli eta familiarekin egoteaz gain, lagunekin berriz atera ahal izatea errekupeazioaren %80a izan zen nire kasuan. Hasierako talka,

“Reisen ebakuntzaren ostean izandako aurrerapenak? Oreka, maskuriaren kontrola, muskuluen indartzea, hotza eta beroa, hobekuntzak sistema kardiobaskularrean, neurobegetatiboan, digestioan, sexuan...”

ohitu artekoa, inguruan familiarik eta lagunik izan gabe, akabo”.

Antonio Reis, “Mirarien Doktorea”?

Muina guztiz puskatzea oso-oso zaila da, eta zerbait baldin badago, beti dago hobetzea. Horra neurozirujau portugaldarraren filosofia. Muin lesiodun 200 pertsona baino gehiago artatu ditu hiru urtetan eta tratatutako %80-90 inguruk hobera egin duela ziurtatu du berak. Iturgin lana egiten du: bizkarrezurra eta ornoak ireki eta muinera iristen da. Ondoren, muina inguratu duen zorroa zabaldu eta traumatismoagatik sortzen diren kisteak, odol koagulatua, hezur puskak... kentzen ditu; garbitu egiten du, azken finean. Berrito itxi, eta puntu horretan moztua zegoen likido zefalorrakidea martxan jartzen da. Gure elkarrizketatuen arabera, likido horrek jada hobekuntzak eragiten ditu eta muina, zikin-keriarik gabe, onera etortzen hasten da. Berehala, adibidez, lesioa orno dortsaletan dutenek arnasa %20 inguruan izatetik %100a berreskuratzen dutela esan digute –aulkia bultzatzeko jada sekulako aurrerapena–.

Pixkanaka muskuluak, esfinter... sentitzen ere hasten dira, prozesu luzeagoan; hori bai, errehabilitazioa funtsezkoa da, buruak gorputzeko atalei aginduak emateko ohitura galtzen baitu, eta berriz errekuperatzen hasi behar da, haur txiki batekin bezala.

Polemika, dena den, handia da Antonio Reisen ebakuntzaren inguruan. Muina ukitzea puskatzea dela diote aurkariek, eta doktoreak garbitu egiten duen arren, muina osatzen duen materia hauskorregia dela. “Iruzurti bat baino ez da eta jendearen esperantzaz baliatzen da”, entzungo diezu hemengo medikuei eta Toledo eta Badalonako zentrokoei. Dirua helburu duela –30.000 euro kobratzen ditu batez beste ebakuntza-

“Iruzurti bat baino ez da Reis eta jendearen esperantzaz baliatzen da”, entzungo diezu hemengo medikuei. Dirua helburu duela eta kasu batzuetan pazienteak okerrago utzi dituela salatu dute

gatik– eta kasu batzuetan pazienteak okerrago utzi dituela salatu dute horiek. Gurekin bildutakoek, aldiz, oso garbi dute: neuronak birsortu daitezkeela frogatu dute euren esperientziek eta istripuak utzi zituen bezala bizitzetik honetara iristera aurrerapen itzela izan da. Hasteko, ez dute inongo farmakorik hartzen, eta hori jada aurrerapena da.

Zergatik sortzen da halako eztabaida? Cerviño dioenez, Toledoko zentroko ikerlariek farmakoak bilatzea baino ez dute buruan, istripuak moztu ez dituen muinaren hariak aktibatzeke: “Paraplegikoentzako ospitaleko ikerlari burua neurona-ikerlaria izan beharrean farmazeutikoa den leku honetan zer eta farmakoak bilatzen dituzte, nola ez! Industria

farmazeutikoa dago atzean, patenteak, dirua... Ez zaie interesatzen guri ebakuntza egitea”. Osasun zerbitzuaren egitura itxia eta bertako langileen egoa eta erosotasuna kritikatu dituzte. Munduatek, tetraplegikoa dela jakiteak harritu gaituen gizonak, Lisboa joango zela esan zion hemengo medikuari: “Dirua botatzea zela esan zidan. Beraz, bueltan beregana joan nintzen eta ba al dakizu zer esan zidan?

‘Zutik jartzen zara?’. ‘Ez’. ‘Bada objektiboki ez dizut inongo hobekuntzarik sumatzen’. Eta gainera ordaindu egiten diote mediku lanarengatik!”.

Ez dute ulertzen Euskal Herriko eta Espainiako medikuen egoskorkeria, behin eta berriz uko egin baitiote Antonio Reisen ebakuntza ikustera joateko eskariari. Degant Cerviño artatzeko Euskal Herrira etorriko zela ere esan zion doktoreak, baina hemen ez zioten horretarako ebakuntza-gelarik utzi. Munduko beste hainbat herrialdetan, ordea, aritu da dagoeneko eta 2006ko urrian tesia aurkeztu zuen nazioarteko komunitate zientifikoaren aurrean. Komunitateak bide bat izan daitekeela onartu du dagoeneko.



Ai ene, sabela sentitzen dut!

Patxi Salbide da kolektiboko aitzindaria, bere bidez ezagutu baitzuten besteek ziru-jau portugaldarra. Istripua duela hamaika urte izan zuen eta urtetan soluzio bila aritu zen. Hala topatu zuen Reis, 2006an; garai hartan muin lesionatuekin kirurgia esperimentalak egiten zuen neurozirujauak, eta Salbidek arriskatzea erabaki zuen. Egun batetik bestera, gorputzak oso ondo erantzun zion ebakuntzari eta sabeleko min handiarekin esnatu zen. “Baina zer pasatzen zait?, nioen, ai ene, sabela sentitzen dut-eta, zortzi urtez ezer sentitu gabe egon ondoren!”. Hiru urte igaro direnean, ozen zerrendatu dizkigu izandako aurrerapenak: “Oreka, maskuriaren kontrola, muskuluen indartzea, hotza eta beroa, hobekuntzak sistema kardiobaskularrean, sistema neurobegetatiboan, digestioan, sexuan... Mila gauza. Kirurgiarekin %1 berreskuratzen duzula? %2? %7? Dena ongi etorria izango da”.

Lisboako gastu guztiak Osakidetza pasa zizkion Salbidek, baina ez zioten ezer ordaindu, ez zutelako “ezinbestekotzat” jo Lisboara joan izana, eta Salbidek azaldu zienean prest zegoela aurrerapenak erakusteko, ezezkoa jaso zuen berriro. Egia esan, legez dagokigu gaixo jarritz gero eta munduko edozein lekutan lagundu ahal digun tratamendua egonez gero, berau jasotzeko eta tratamendua diru-laguntzekin ordaintzeko eskubidea. Euren laguntza hori ukatzen zaielako haserre da Salbide. “Niri Osakidetza mediku batek esan zidan: ‘Patxi, nola nahi duzu neurozirujau bat eta kirurgia gela bat zuretzat jartzea, muskulutxo batzuk mugitu ahal izan ditzazun?’. Baina muskulutxo horrek ahalbidetzen dit adibidez oraintxe jakitea pixa egiteko gogoa dudala eta komunera joan behar dudala, poltsa batera lotutako zuntza zakilean sartu beharrik gabe. Eta handia da hori, oso handia!”.

Lisboara joaten dira hiru eta sei hilabete artean, errehabilitaziora. Noski, Lisboarako gastu guztiak ere norberak ordaintzen ditu. Pello Mugarzak duela bi urte egin zuen ebakuntza, Mallabiko bizilagunen eskuzabaltasunari esker –15.000 eurotik gora bildu zituzten lagunek herrian, egutegiak salduz– eta dioenez, ondo daukazu aldea indartzera bideratzen da errehabilitazioa Euskal Herrian, juxtu kontrakoa egin behar denean: okerren duzun aldea potentziatu. Reisen lan taldeko fisioterapeuten

gomendioak ondo hartu dituzte hemengo fisioterapeutek, baina baten batek zera entzun behar izan du medikuaren ahotik: “Ez bazara zutik jartzen, ez duzu errehabilitazio beharrik”.

Patxi Salbidek dio euren helburua ez dela sistema edo medikuak gurutziltzatzea, “bakoitzak bere lana egitea besterik ez dugu nahi; ez ditugu mirariak eskatzen, lagundu gaitzela baino ez”. Euskal Herrian lesio neurologikoentzako zentro bat nahi dute, baliabide publikoekin bizi kalitatea hobetzen laguntzeko eta lesioa ikertzeko.

Ama-zelulekin esperimentatzeko prest

Muin lesioetako ikerketa aurreratu eta berritzaileena aurkitzeko ez dago Portugaldik asko aldendu beharrik: Jesús Baquero Madrilgo Unibertsitate Autonomoko katedratikoak ama-zelulekin egiten du lan. Lesionatuen hezur-muinetik ama-zelulak atera, kultibatu, lesioan injektatu eta hezuraren hutsuneak betetzea lortu du, nolabait. Zerriekin egin du proba, eta oinez jarri ditu. Orain bost pertsonekin esperimentatzeko asmoa du eta Antonio Reisekin harremanetan jarri da jada, lesio garbiekin hobe izango delako emaitza. Elkarrizketatu denek aho batez erantzun diote gure galderari: aukeratuko balitu zalantza izpirik gabe eskainiko lukete euren gorputza esperimentatzeko.

Zergatik? Ez daudelako prest onartzeko gorputza hilda dutela, konponbiderik ez dagoela: “Lehen, gurpil-aulkira lotu egin behar ninduten, bestela irristatu egiten nintzelako –dio Munduatek–, espasmoak nituen eta ez nuen ezer ere sentitzen. Orain, belaunetik gora badakit zer ukitzen didaten, sentsibilitatea berreskuratu dut. Lehen diafragma blokeatua nuen, ezin nuen arnasarik hartu, orain kantatu egin dezaket! Duela hilabete batzuk hondartzara joatea ez zitzaidan burutik ere pasatzen, eta gaur egun Pello eta biok joaten gara, lau hankatan jartzen gara han... eta arazorik ez. Are gehiago, Antonio Reisek esan zidan, lehenbailehen ebakuntza egin izan balidate, orain oinez nintzela”. Dagoeneko edo etorkizunean lesioa dutenei zabaldu nahi diete mezua, euren eskaini ez zitzaie aukera izan dezaten: informatu daitezela, eta gero norberak hartu dezala erabakia, baina jakin dezatela irtenbide hau ere badela. ■

www.argia.com/argia-astekaria helbidean, tratamendua eta ebakuntza azaltzen duen Antonio Reis neurozirujauaren txostena gaztelaniaz.

“Psikologoa jartzen dizute egoera berria asimilatzen, eta zentro batera bidaltzen zaituzte gurpil-aulkiarekin bizitzen ikasteko, atzera bueltarik ez dagoela ziurtatzen baitizute medikuek, eta ez da hala”

DEGANT CERVIÑO